AGURRA

LASUEN'ek

Jaun-andreok:

GEREDIAGA Durango Merindade-aldeko Adiskideen Alkartea, bere eskualdeko komarka-bizitzan ta kultura-baloreen alde lan egiteko sortua da. Orretara alegindua da. Beste aldetik alegindu bear dau Merindadeko erri danak, eskubide bardiñekoak diranez, bere ekintzak erri oneetan egitera. Orretarako, bere Gabonetako Batzar Nagusian erri bakoitxeko ekintzeen planifikaziñoan, emen, Ermuan, Gipuzkoaren muga erri onetan, jardunaldi oneek egitea erabagi eban.

Aurten, orain 50 urte, lau Diputazioen babesean, Oñatin, Euskaltzaindia, gure izkuntzaren Akademia sortu zan. Guk be, gure eskualdea, Euskalerriaren zati bat danetik, urre-eztegu orreetan parte-artzea gura izan dogu. Era bitara, idazleeri, zuori, dei bat egiñaz, berak, Euskaltzaindiak, artu daben asmo berezia, euskera literarioaren batasuna, aztertzeko, iru egun oneetan. Bigarren, era izango da, Domu santuetan, III'gn. Euskal Liburu ta Diskoen Azokan, Durangon, Euskaltzaindiari berari Azoka eskeiñiaz.

Igaz, Zaldibarren antolatu genduzen antzerki-ikastaroak. Bertan erabilli ziran, askatasun guztiagaz, era askotako gaiak, ta uste dogu balio andiko erabagiak artu izan zirala. Bide barri bat izendatu zan nundik eta zelan joan bear eban euskal antzerkiak. Ikastaro orretan gai bakoitza ondo aztertua ta sakondua izan zan.

Gaur asiko dozuen jardunaldi oneek orrela eroateko asmo sendo bat artu daigun. GEREDIAGA Alkartearen izenean eskabide

ori egiten deutsuet idazle danori. Alegindu zaitezte, iru egun oneetan, batasunaren alde lan egiten. Esango genduke euskerazale guztiak, gaur, Ermura begira egongo dirala. Bu dauke itxaropena zuen lanak batasun osora eltzen ez balira be, urreratuko zareela beintzat. Ausartzen naiz, euren izenean, oraindixik txalo beroak eskeintzen.

Eskerrak, ba, danori, etorri zareen guztiori, ba dakizue GEREDIAGA zuen serbiziorako dagoala. Eskerrak Erriko Alkate Onaindia jaunari, batzar-lekurako emon dabezan erreztasunakaitik.

Eta jardunaldiak diranetik, lanean jardun daigun.

Lasuen mahiburukoa